

Santa Teresa, olerkari

Nor ez eder-zale? Emen, baiña, gauza bi daukaguz: bata ederraz konturatu ta bestea barru sentitzen dan eder-lera adierazo. Begira: mendi-gaillurrean gagoz, mokor zapal gaiñi paketsu. Aurrez aurre, nasai ta dizditsu ikuspegi bikaiña. Ego-aizeak, goiz-goizetik urriñera dauskuz laiño narras eta gurme setatiak.

Begiak edegiz, ikuskizun sotillagorik! Bat-batean ederez ase jatzuz zentzunak, begi-belarriak. Bolbolka asi jatzu barrua, sutan pertza irakiten lez. Ederrak artu zaitu atxilo, ederraren erdi-miñez zagoz; poema bat, su ta dardar, osotu nai zeunke. Baiña eziña: aundituegi egin jatzu barrua; sugar, bañerako gertu zagozalarik be, ez arrazoizko lanerako, bolbolka orretatik ezin zeinke atera poema gori bat, naasiegi zagoz. Ikusiz gauzen egia sartu jatzu barruan eta poema bat liriku kemenez egiterakoan, egiari, ludiko gauzetan naiz norbere barruan daroagun egiari, itz-eragin bear jako, txilio bat, irrintzi bat atera-azo. Txilio ori, barriz, benetako olerkari danak itz giarrez, solas aukeratu ta esan-nai aundikoz jantzirik, biotzondo gori-gozoz ornidu oi dau.

Baiña ikuspegi zoragarri baten aurrean naiz barne-zauskada ugoldetan murgildurik gagozanean, ez jaku errez poema bete-bete bat osotzea: uin guenegiak gaukaz, sugarra motel dedilla apur bat, giro baketsuagoa bear dogu. Ba-

kezko giroa bai ona jaku aurretik bolbol euki dogun barrua usteko, elerti naiz olerti-lanerako.

Eta arira jorik, norbaitzuk esan dabe Santa Teresak bere mistikazko goraldietan ondu zituala bere poemak. Ba' liteke au egia ez izatea osotoro. Teresa olerkari dogun arren, etzan orri lotua ibilli, orri emona diñot berariz. Juan Gurutzekoak Toledo'ko espetxean egolarik arildu ebazan bere poesirik ederrenak, zati batzuk beintzat. Santa Teresak komentu-lanean ebillela ondu euskuzan bere koplak.

Koplak dira, izan be, poesiak baiño geiago Teresaren oler-lanak: bidez bide egiñiko koplak, urte barruan ospatzen ziran komentu barruan egiten ziran jaietarako koplak, solas-aldi naiz errekreaziñorako koplak, aitzaren baten jaiotegunerako koplak. Koplari, ez olerkari; egia esan, ba-zan gai ortarako be, mistikaz ta ederrez gainezka eukan izate-barrena, mendi-tontor bateko ikuspegi zoragarri batek esiturik lez bizi zan barru-bizitza yaio ta indartsu baten. Baiña bizitza bizi ta jori ori neurtitzetan adierazten etzan egundo be alegindu.

Ibiltari zoli, ezker-eskuma ba-eukan ederrik inguruetan. Ederrez apain-apain eukazan bazterretatik ibilli zan: Gredos eta Guadarrama'ko mendi-kate arkaitzez josiak, Andaluzia'ko zeru garbi urdiña, Gaztela'ko zabaldi azkenbageak... Alan ez euskun olakorik abestu; noizik bein egindako aitamen batzuk, ez dogu geiago aren idatzietan aurkitzen. Zoragarri jakozan gauza pitiñak: baratzak errekondoak, ur ibilliak, erle langilleak, sua, zugatz txikiak...

Teresa elburu batek erabillen beti. Asmo bat eio ta axe egia biurtu. Ba-dau, ezin dogu ukatu, ezpala poeta izateko, esan dogunez; baiña ori al zan bere jomuga? Zerbait dagianean, zer ori darabil gogoan. Bertsoak ontzerakoan, ez ditu suster barik ontzen. «Ontzen ikusten dogun bertsoak —diño Donazar'ek—, bere garaikoak diñoskuenez, bideetako ibillia edo-ta komentuetako bizi-ibillia bizkor-azteko dira. Bizi ori ak liturgi txikia lez bururatzen dau, Dabid Erregeak, egiazko bizimodu baten jazoera beiñenak salmuetan jarritik, bere biziari eta ingurukoenari aria emon eta indar-azo oi eban lez» (*La Cierva vulnerada*, 111 orr.).

Bere alaben karmeldar biziari sua ta poza emon nai eutsen Teresak. Ortarako idatzi zituan bere koplak eta, ain zuzen, erri-bertsoetan oiñarrituak ditu geienak; poztu eitezan, bai, gazte areik komentu barruko bizikera latz samarrean. Kristoren, Andra Mariaren eta Santuen jaietan batez be, ez eban arpegirik ez biotzik illun, triste naiz larri ikusi gura. Gabon aldian sekulako jaiak eratzen zituen: oindiño be, Avila'n San Jose komentuko oroigailutegian erakusten dabe garai aretan, koplak ta kantu, joten eben danbolin soññutsua.

Onako izkiñu (letrilla) ta koplak ugari atondu zituan Teresak, uste denez, askotan errez ez danarren berak onduak zeintzuk diran jakitea. XVIII'garren mendearen erdirantz, Aita Andres karmeldarrak bilduma edo txorta bat osotu eban komentueta orduan be abestuten ziran eta Ama Teresarenak zirala uste eben guztiakaz. Gerora be, aretatik batzuk onartuak izan dira, beste batzuk ez. Gaur, naiz eta ez ziurtasun osoaz, libururik geienak, Ama Teresak berak eginak lez argitaltzen dituenak, nik euskeraz ipiñi nebazan *Onbidea* deritxon liburua argitara emon nebanean. Lau sailletan banandurik datoz an: 1) *Lirikuak*; 2) *Gabon-kantak*; 3) *Eskintzazkoak*, eta 4) *Sendikoak*. Guztiz, 31. Danak dozuz arin biziak, mamin aundikoak. Ona lenengo biak:

NIRE LAZTANA ENEA

Nazan eta daukadan oro
emon neutsozan unetik,
nire Laztana da enea
ta ni Arena osorik.

Eiztari bigunak geziaz
zauri-zauri mindunean,
tink jatan gogo gelditu
maitasunaren mendean,
ta aldaketa dagit bikaiña
bizitz barria arturik:
nire Laztana da enea
ta ni Arena osorik.

Gezi goriz zauritu nindun,
maite-suz zan kutsutua,
ta nire gogoa idoro zan
Egilleaz alkartua.
Jainkoarena nazanetik,
ez dot nai beste maiterik:
nire Laztana da enea
ta ni Arena osorik.

IL-EZIÑEZ

Bizi naz, ez baiña enegan,
ta ain ditxarot bizitz goitia
ez ilteak daust
kentzen bizia.

Joana bizi naz neugandik,
maite-sutan il-bearrez;
Jainkoaren baitan bizi naz,
beretzat nindun jo maitez;
biotza neutsonean emon,
an jarri eustan idatzia:
ez ilteak daust
kentzen bizia.

Jaungoikozko espetxe onek
—nire maitezko egoitza—
Jauna dau egin nire jopu
ta azkerik ene biotza;
ta ain jat griñagarri Jainkoa
ene atxillo ikustea,
ez ilteak daust
kentzen bizia.

Ai!, au biziaren luzea!
Erbeste onen minkorra!
Espetxe ta kate oneitan
esturik bizi bearra!

Noiz urten-zain nagola soilki
damost oiñaze gorria!
ez ilteak daust
kentzen bizia.

Ail, au biziaren garratza,
Jainkozko ezti bagea!
Maitasuna bait da txit samur,
itxaro ez baiña luzea:
ken eidazu, Jainko, pixu au,
galtzairu baizen andia:
ez ilteak daust
kentzen bizia.

Il-bearraren uste gozoz
bizi naz bakar-bakarrik,
il ostean, bada, bizia
itxarok dakarst ziurrik;
bizia damozun eriotz,
ez luza, bait nozu zeuria:
ez ilteak daust
kentzen bizia.

Ona, mardul da maite-sua...
Bizitz, ez zakidaz ziztrin;
ez daukazu beste biderik,
gaintzeko, galdua egin.
Betor bein eriotz biguna,
betorkit ilte aurkia:
ez ilteak daust
kentzen bizia.

Alako bizitza goikoa
egizko bizitza dana,
bizitz au aitu ta il arteño
biziz goza oi eztana:
eriotz, ez zakidaz muker;
iltzear bizi nadin lenik:
ez ilteak, ail,
kenduz bizia.

Bizitz, zer neikeo nik emon
nigan bizi dan Jaunari,
zeurori ordez galdu ezik
A dagidan irabazi?
Ilda opa dot A jaritxi;
orren dot kutun maitia:
*ez ilteak daust
kentzen bizia.*

Kidekoak dozuz besteak be, sakon ta jainkoti egiñak mistika-arikoak, eta gatz-ozpiñez aseak alaben komentu-bizitzari jarriak. Danak, jakifia, emakume-biotzaren zer gazi-go-
zoak igurtziak. Etzan olerkigintzan sartu, koplagintzan baiño; bietarako, alan be, trebe zanik, nok ukatuko ete?

Prosaz idaztean ere, errez egaz dagi zugatz lirikura. Iru-
dimen azkarregikoa ez ba'zan be, biotzondo bero-beroa da-
gerkigu itxi euskuzan idaztietan; bere *Bizitzan eta Biotz-oiue-
tan* (Exclamaciones) baitik bat. Amazazpi ataltxo dabez *Biotz-
oiuak* eta Jainko-maitasun galdatan ixuritako oi u biziak dira.
Onela asten da lenengoan: «Oi, bizi, bizi! Zelan dirauzu zutik,
Bizi jatzunetik urrin? Zeri zagokioz, bakarte gorri ontan?
Zer dagizu, zeure egiteko guztiak uts eta akats ba'dituzu?
Zek poztu oi zaitu, ene gogo, itxaso zirimoltsu ontan?».

Baiña emen doakizu agerbide lez eta txasta daizun ama-
lau ta amazpigarreneko txatalez zati au. Ara: zeuk ikus,
baiña nik uste dot emen dagoela olerkari edo poeta lirikuen
goitasuna ta garra. Irakur:

«Oi, lagun zakit Jainko, Jauna!
Au gogorraren gogorra!
Au zora, kerri ta lausoa!;
gauza bat gal ba'dadi,
orratz bat
edo mirotz bat,
—aidean zear egaz ikusiaz
begiak pizkat gozatzeko baiño ez dana—,
galtze orrek min emoten dausku;
eta ez dauskula miñik emon bear
Jainko-aunditasunaren arrano egalari au,

eta atseginetan amairik izango ez dauan
erreñua galtzeak!
Zer da au? Zer da au?
Ez dot nik ulertzen.
Jar Zeuk, ene Jainko, osagarria
ainbesteko zorakeri ta lausoari!

Ai ene! Ai ene Jauna!
erbestealdi au bai dala luzea,
ene Jainkozko gura bizi neketsuz
igaro bear dana.
Zer dagike, Jauna, arimeak giltzape ontan?
O Jesus!,
giza-bizia bai luzea, laburra dala esanarren!
O bizitz, ene onaren etsai!
Eta nok leukaken zu amaitzeko baimena!
Zaroadaz, Jainkoak zaroazalako;
zaukadaz, Arena zarealako.
Ez zakidaz zital, ez esker gaiztoko!

Ez naizu zigortu neuk nai
edo opa dodana emonaz,
zure maitasunak —bizi bedi nigan—
gura ez ba'leu!
Il bedi onezkero «ni» au
eta nigan bizi bedi ni baiño geiago dana,
ni zerbitzari izan nakion!
Bizi bedi Bera eta bemozt bizia!
Bera bedi errege ta ni Aren mendeko,
nik ez bait dot beste askatasunik gura!».

Teresak onela idaztea ezta bape arritzekoa. Konta ezin-
alako doai, mesede ta ikuskizunez ornidua, trinkatzen eban
atz-artean lez maitasun laba gorian. Maitatua zan, maitatu
bearra eukan. Maitasunezko esperientzirik gorenengoak izan
zitan Teresak; Jainkoa azaltzen jakon aurrean begiz ikusiko
ba'leu lez, bizi ta dizditsu. Maite-miñaren eragiña ezin eroanik,
osabideren bat billatu nai leuke arimeak, baiña ezin. Eriotza
opa dau ortarako, ain maite dauan Jainkoaz batzeko. Sastada
itzelak emotsozan maitaleak, jasan eziñak. Gorde egiten ja-

kon sarri zauritu ondoren, eriotzak aiña illa itxirik: naiz eta odolik ez ixuri, barrua samin-jario eukan, ezin bestean.

Iñoizka aingeru bat gorputz-itxuran ikusi oi eban bere ezker aldean. Olako ikuskizun bateko jazoera, onan pintatzen dasku berak. «Etzan aundia —diño—, txikia baiño, eder-ederra; sutan eukan arpegia, guztiz goi dagozan gotzonen antzera. Kerubiñen artekoak izan bear dabe, niri ez dauste izenik esaten... Eskuetan ikusten neutson urrezko gezi luze bat, eta burdiñearen puntan su pizkat eukala iruditzen jatan. Biotzetik sartzen eustan bera, eta batzuetan, nik uste, erraie-taraiño eltzen jatala. Ateratekoan beraz eroaztazala erraiok uste neban, Jainko-maite-su bizitzan izten ninduela. Oiñaze onek, aundia bait zan, oi u ta negar-xopin areik aterazoten eus-tazan. Baiña, onen oiñazea guztiz samurra da-ta, arimeak ez dau nai ori kentzerik, poztu be ez dau ezek poztuten Jainkoak berak ezik» (*Bizitza*, XXIX, 12-13).

Onako ikuskizun, doai ta mesedeekin, esango daustazue, edozein litzakela olerkari, olerkia arima garraxia bait da. Egiatzko poeta danak, edo ortan alegintzen danak, naiz aingeru-geziz naiz norbere barne-eragiñez, giroa sortu bear dau inguru-mari, garraxi ta intziri bipilak jaurti al izateko. Au ez dagiana, bego bertsolari maillan, naiz lerro-idazle fiñen artean.

Irakaspén oni dagokionez, egiatzki esan lei Santa Teresa olerkari dogula, eder-zale ta ederra adierazteko gai zana, ortan jarduna izan ezpazan be. Komentuko jaiak artu zituan kantagai: eliz-jaietz gaiñera, jantzi arteak, buru-zapi jazteak, profesak... Koruko otoitzetan eder jakozan Dabid'en salmuak, goratzarreak, Aste Santuko zeremoni ta kantak, Abesti bi-kaiña... Berez-berez, iturriko ura lez, datoz estrofak aren luma-erpiñetik. Lau ta ulert-errez idazten dau.

Amaitzeko, ederto Donazar'ek: «Olerkariak, poesi billa ba'lebil, aurrera joko dau. Baiña Teresa Ama billatzen dau-ba'lebil, aurrera joko dau. Baiña Teresa Ama billatzen dauanak, au esango dau: Emen dago!»

Aita Onaindia